

## GALDERAK

1. Beharrezkoa al da Euskal Idazleen Elkarteak? Zergatik?
2. Zergatik egin zinen EIEko bazkide?
3. Orduko espektatibak bete al dira?
4. Zer eskatuko zenioke Elkarteari gaur egun?

### 1.- Beharrezkoa al da Euskal Idazleen Elkarteak? Zergatik?

Beharrezkoa... Galdera horri erantzutea zaila da, idaztearen lanbideari buruz planteamendu profesionala egin daukaten idazle horietakoa ez baldin bazara –eta ni ez naiz horietako bat–. Ikuspegi indibidualista eta pertsonal batetik, erantzuna da EZETZ. Euskal Idazleen Elkarteak ez zait ezinbestekoa “bere kasa dabilen idazle modura” aurrera egiteko ala ez, planteamendu “profesional” horretatik kanpo nagoelako. Eta, planteamendu profesional hori zein den edo *zer* den? Ba liburuetatik bizitzea; asmatzen ditugun liburuetatik bizitzea alegia. Egia esanda, idazle profesionala hori da; ez da ISBN zenbakidun liburu bat plazaratzen duena; bere lanbidetik, idaztetik, benetan bizitzera iristen dena baizik, beste hainbat baliabide (hitzaldiak, mintegiak, ikastetxeetako bisitaldiak, e.a.) zeharka-edo erabilita ere.

Dena den, geurekoiak ere ez dugu izan behar, hau da, nik idazle modura planteamendu profesional bat egin ez izateak edo horrelako zerbait egiteko gai ez izateak ez du esan nahi beste batzuek hori erdietsi ez dutenik edota hori erdiesteko borrokatuko ez direnik (baina borroka hori ez da nirea; hau da, profesionalki aspaldian eman nuen amore; baina profesionalki bakarrik, zeren idazle modura, ez baitut inoiz amore eman. Eta ez dut inoiz amore emango –lehenago ukatuko nituzke besteak, neure burua bera baino–).

Bestalde, ikuspuntu profesionala albo batera utzita, aipatu dudan planteamendu profesionala gainditzeko duen edo, behintzat, horrekin zerikusirik ez duen beste ikuspuntu bat ere badago, eta kolektibo baten parte zarela jakitearen garrantziaz ari naiz; izan ere, idazle guztien artean, oro har, une jakinetan sor daitezkeen –eta nik oso gogoko ez ditudan– ika-mikak alde batera utzita, euskal idazleek osatzen duten kolektiboarekiko estimu eta miresmen handia sentitzen baitut.

Esan berri dudana berez nahiko adierazkorra den adibide grafiko samar batekin azalduko dizuet: euskal idazleak ikusten ditut txirrindulari-tropel baten gisa, eta tropel horretan egotea eta tropel horretako kide izateaz harro gaude denok, bakoitza bere ikuspegitik, bakoitza bere bertuteekin eta bere akatsekin, batzuk beste batzuk baino ahalmen handiagokoak –une jakin batean–, batzuk adinak eta arrakastak ematen duten euforiaren erdian, beste batzuk apalagoak maila orokorraren erdian, baina, azken finean, idazle-tropel bat, bere esku dagoen guztia egiten duena helmugara iristeko, uneoro tropelaren erritmoa ez galtzeko, oso atzean ez gelditzeko, norberaren “estandarteak” ahalik eta leku onenean uzteko, e.a., e.a.

Alde horretatik, Euskal Idazleen Elkartek, neurri batean edo bestean, tropel horren parte naizela sentitzen lagundu dit pixka bat, nik uste. Halako “premia” sinboliko bat

baino ez da, baina niretzat esangura berezi bat daukana. Beti ere ahaztu gabe, noski, zer den idazle batentzat garrantzitsuena: argitaletxe bat, publiko bat (irakurle batzuk) eta gizartean onarpen minimo bat izatea. Horrek, noski, ezin du euskal idazleen elkarte batek eman (are gutxiago gure elkarteak); baina, hala ere, urrats hori ematen dutenentzat –edo eman nahi dutenentzat– lagungarria izan daiteke, nola ez, helburu hori lortzen lagunduko dieten zenbait baliabide edo zenbait ekimen eskura izatea.

## 2.- Zergatik egin zinen EIEko bazkide?

Lehenengo puntuan azaldu ditudan arrazoiengatik bazkide tu nintzen Euskal Idazleen Elkartearen.

## 3.- Orduko espektatibak bete al dira?

Euskal idazleen kolektiboaren parte sentitzeko nituen “espektatibak” modu sinboliko batez, behintzat, ea bete al diren? Pentsatzen dut baietz, bete direla. Betetzen ere ez ziren oso zailak... Alde horretatik, Elkarteak urteotan abian jarri izan dituen zenbait ekimenetan parte hartu izanak helburu xume hori lortzen lagundu didala esango nuke: Euskal Idazleen Elkarteak ateratako agendak, “POEMA-SORTA Gernikaren gainera” ekimena, Euskal Idazleen Elkartearen web gunea... Akaso, antzeko ekimen gehiago bota ditut faltan, hau da, ekarpen txiki bat (poema pare bat, ipuin labur bat...) egiteko eskaera planteatzen duten ekimen gehiago, eta jarraian, material horrekin, parte hartutako idazle guztien ekarpenekin, argitalpentxo bat atera...

## 4.- Zer eskatuko zenioke Elkarteari gaur egun?

Alde batetik, “ezer ez” erantzuteko tentazioa dator kit burura. Azken finean, planteamendu “profesionalik” ez dut... Beste alde batetik, hirugarren puntuan horri buruz zer-edo-zer eman dut aditzera dagoeneko, nik uste...

Eta, azkenik, ondoko galdera ere planteatu nezake erantzun modura: Euskal Idazleen Elkarteak argitalpen digitalak antolatze ko zerbitzu bat martxan jarri beharko luke, elkarteko kideok geure liburuak publikoari zuzen-zuzenean eta bitartekaririk gabe eskaintzeko aukera izan dezagun, beste gremio batzuetan ahalegintzen diren (eta egiten den) bezala?

Elkarte-mota asko daude (eskulangileak, ekoizleak, e.a.), eta ohiko bideetatik publikoarenagana iristen saiatzen badira ere, merkatura zuzen-zuzenean eta bitartekaririk gabe heltzen ere ahalegintzen dira, bi planteamenduok elkarren osagarri izateraino. Noski, ez dakit Euskal Idazleen Elkarte hori egiteko tresnarik egokiena ote den... Beharbada ez da, eta kasu horretan nire planteamendua okerra izango litzateke.

Nolanahi ere, planteatzen dudanari jarraiki, Elkarteak argitaratzeko bidea eskaintzekotan, oinarrizko zerbitzu bat ere eskaini beharko luke: testu-zuzenketak, maketazioak, ISBN zenbakiak izapidetzea, eta abar. Hori bai, beti tarifa erakargarri edo abantailatsuak eskainiz elkarteko bazkideei. Elkarteak berak sor lezake diru-iturritxo bat hortik...

Beharbada, alderik korapilatsuena liburuen kalitatearen gaineko kontrola izango zen... Dena den, hor egongo lirateke irakurleak, bakoitza bere lekuan jartzeko...

Noski, norbaitek esan lezake Euskal Idazleen Elkartea ez dela argitaletxe bat, eta arrazoi pixka bat bederen ez litzaioke faltako, ziur aski... Dena den, ideia berez interesgarria izan daiteke...

Baina gaiez aldatuz, idazkuntza profesionalera jauzi egin nahi duten edo jauzi hori eginda daukaten idazleentzat mesedegarriak gerta daitezkeen ekimenak aurrera ateratzen saiatu behar luke elkarteak; eta bide batez, “begira egotera” eta “tropelaren parte izatera” mugatzen diren idazleak (zuen zerbitzari apal hau, kasu) kontent uzteko, noizean behingo argitalpentxoren bat edo beste atera, denon ekarpenekin osatua.

Astigarragan, 2013ko otsailaren 8an

Xabier Galarreta